

KONTROL MOZIOA

AUZO-ELKARTEEN LOKALAK EGOKITZEKO LAGUNTZA EKONOMIKOA DELA ETA

Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko apirilaren 10ean Pertsonen Batzordean aztertutako “Elkarteen lokalak egokitzeko aurrekontua” interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Urtez urte, Donostiako Udalak, Partaidetza Programaren aurrekontuetan, elkarteei lagatako lokalak berritu edo egokitzeko kontu-saila izan du. 2016. urteko aurrekontuetan, adibidez, 50.000 euroko aurrekontua ezarria zuen 6. kapituluan (622.99.02 “Auzo elkarteen lokal berriak prestatu”). Kontuen likidazioan, ordea, gure harridurarako, ikusi dugu aurrekontu hori ez dela baliatu.

Ez dugu uste arrazoia denik berritzeko beharrianik ez egotea. Izan ere, 2016ko martxoko udalbatzarrean, aho batez onartu genuen talde politiko guztiok Morlanstarrak auzo elkartearen lokala eraberritzeko ondoko konpromisoa:

Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egokitzerako proiektua idazteko eta obrak gauzatzeko beharrezko laguntza eman dezala Morlanstarrak elkarteak Morlans-ko auzotarren erabilerarako udal lokal duina izan dezan.

Horrekin batera, uste dugu beste lokal eta elkarte batzuen aldetik birgaitze-beharrian gehiago izango zirela. 2017ko apirilaren 10eko batzordeetan gaiaz galdetuta, erantzun zitzaigun Gobernutik, mozioaren betekizunean, 2016ko aurrekontua Morlanstarrak elkartearen lokala egokitzeko erabiltzea erabaki zuela Udal-gobernuak, baina ezinezkoa izan dela urte horren amaieran oraindik proiektu basikoa itxi gabe zegoelako. Ondorioz, 2017ko aurrekontura inkorporatzea eskatu zela eta dagoeneko egokitze-proiektua amaituta dagoenez, epe ertainera obrak hasi eta kontu-saila baliatuko zela. Horrez gain, gaineratu zitzaigun aurtengo aurrekontuari dagokion kontu-sailaren erabilera azterketa-fasean zegoela.

Dena dela, egiaztatu dugunez, 2016ko ekitaldiko aurrekontuaren kitapen txosteneko soberakinen atalean, “622.99.02 Auzo elkarteen lokal berriak prestatu” kontu-saila ez da 2017ko aurrekontura inkorporatu eta ondorioz, 50.000 € horiek galdu egin dira auzotarren elkarteak hobetzeko erabilerarako. Gainera, Udalari eta talde honi ere adierazi zaien moduan, Morlanstarrak elkarteaz gain, badira Donostian beste hainbat auzo-elkarte lokala

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

eraberritzeko beharra dutenak. Zentzu honetan, garrantzitsua da aipatzea Donostiako auzo-elkarte gehienek lokalak udal jabetzakoak direla; beraz, auzotarrei laguntzeaz gain, Udalaren ondarea ere hobetzen dugu laguntza ekonomiko horien bitartez.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako auzotarren elkarteak hiriaren interes publikoko baina gaitasun ekonomiko urriko agenteak izaki, Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal-gobernuari, aurrerantzean, erabil eta exekutatu ditzala euren lokalak egokitu eta hobetzera bideratutako urtez urteko kontu-sailak.

Donostian, 2017ko apirilaren 12a

Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia